

EDALEAI ITZ BI

GAUZA guziyak gure onerako egin zituban Jaungoiko'ak, ardoa ere bai beraz, bear danean ta bear dan neurriyan artzen dala. Ez ordea gu ardoarentzat egiñak ez gera, edota ardoaren mende egoteko.

(Gen. I, 28, 29, 30. —Ps. VII, 7. —Heb. II, 7, 8.—Eccli. XXXI, 32.)

*
* *

Gure atsegin ta pozgarrirako da ardoa, ordikerirako ez. Ardoa eman bear zayete beraz bereu artean itun (triste) daudenai, edota barru samiañia dadukatenai.

(Eccli. XXI, 35, 36. —Id. XL, 20. —Prov. XXI, 6. Ps. CIII, 15.)

*
* *

Baitaere gure osasunerako emana da ardoa, sendagaitzat bezela. Pablo apostolo santubak orregatik, sarritan gaiso egoten zan, bere ikasle Timoteo'ri izkidatu ziyon *ardo piška bat artu zezala*.

(Eccli. XXI, 37. —I, Tim. V, 23.)

*
* *

Neurritz gañeko ardo ta edari gargarri guziya edozeñentzat puzoya da. Burmuñera jotzen du, begiyak gorritu ta illunzen ditu, ezaguera kentzen du, ibilltzen azturazitzen ere du, etxerako bideak galdurazitzen ditu, zulora ta beste arrisku askotara eramaten du, batzubetan baitaere erotasuna ta eriotza badakazki. Espiritu Santubak orregatik diyo: *Ardoak asko ondatu izan ditu*.

(Gen. IX, 21. —Prov. XXIII, 29,35 —Is. XXVIII, 7.—Id. XIX, 14.—Eccli. c. XXXI, 30.)

*
* *

Ardoa, ordikeri ta loikeriya alkarrekin oi dijoaz, iskanbilla ta onda-garri asko dakaizkitela. Geyegi bear berentzat eta dirurik aurreratzen ez dakitelako edale ta loyak, osoro daduzkate aztuta beren etxeakoak eze-rere opatzen ez dizeela, itxura gabeko astindubak ezpada. Eta osoro alperrak izanik edaleak jokuba ta aserrea besterik ez darabizkite. ¡Zenbat eriyotza egin izan dituzten edan gaiztokoak! Krisostomo santubaren esaeran *pizti odolgiroak dira edaleak, eta ez gizonak*.

(Prov. XXI. — Ose. IV, II. — Eccli. XXXI, 38, 39. — Id. XIX, I. — Efea. V, 18. — Hom. 54, al pueblo.)

*
* *

Adan ta Eba'ren pekatutik beren jatorri guziyari ondamen izugarri-yak etorri zitzaizkan antzera, guraso edaleen ondorengoak ere kalte aundiyak izan oi dituzte. Edarirako ta beste galgirotarako gurasoak zuten grña bera ekartzeaz gañera beren ondorengoak, baitaere gorpu-tzaren zenbait gaitzetarako egokitasuna izaten dute. Edaleen ume ta ondorengoetan sarri ikusi oi dirade engeleak, elkorrudunak, idorrak (perlesidunak), batezere birikeriyak eta eroak. ¡Errukarriyak! ¡Eta zen-bat aldiz madarikatuko dituzuten zuben guraso doakabeen pekatubak!

(Efes. II, 3. — Rom. V, 12. — Exod. XX, 5. — Num. XIV, 18. — Deut. V, 9.)

*
* *

Askok eta askok premirik gabe, noiznai ta oituraz bakarrik edaten dute, urdailerako ta burmuñerako kaltean. Egarririk gabe edan bear ez da beñere.

Beste askok iretsialdi (trago) batean guziya edateko oitura dute, ta kaltegarri ere da oitura au osasunerako, ur utsa izandare edaten dana. Piskana-piskanana edota aldiyan txurrutaka edan ezkeroz egarriya erra-zago kentzen da ta kalteak gutxiyago dira, naiz ardoa edan.

(Sendakindeak erakusten du.)

*
* *

Bukatzer a noa Espiritu Santuba'ren itz gogoangarri oyekin: «Ar-doari ez begiratu gorriaka dagoanean, bere margoa (kolorea) beirakiyan distiatzen dagoanean; leunkiro sartzen da ardoa, baña sugeak bezela ozkegingo du azkenean, ta ersugearen antzera puzoya isuriko du» (1) ¡Edaleak, bada aztu etzaitzeltela itz oyezaz!

BLAS PRADERE TA ARRUTI, *apaizak*.

(1) Prov. XXIII, 31, 32.